

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Udal eraikinak garbitzeko langile beharrak aldi baterako betetzeko lan poltsa bat eratzeko prozesuaren oinarri arautzaileak onestea eta hautaketa prozesuaren deialdia egitea

Artziniegako Udaleko alkateak, maiatzaren 19ko 142/2021 Dekretuaren bidez, ebatzi du onestea udal eraikinak garbitzeko langile beharrak aldi baterako betetzeko lan poltsa bat eratzeko prozesuaren oinarri arautzaileak, eta hautaketa prozesuaren deialdia egitea.

Lanpostua: udal eraikinen garbitzailea; kategoria profesionala: zerbitzu bereziak; taldea: profesionala; maila: 13; berariazko osagarria: 12.084,09; titulazioa: eskola ziurtagiria; hizkuntza eskakizuna: 1 (derrigortasun data: datarik gabe).

Eskaerak aurkezteko 20 egun naturaleko epea izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Oinarri arautzaileak udal web orrian argitaratu dira: www.artziniegakoudala.eus.

Artziniega, 2021eko maiatzaren 19a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES